

MIKEL GORROTXATEGI NIETO, euskaltzain urgazlea, Euskal Filologian lizentziatua eta Euskaltzaindiko Onomastika batzorde idazkaria denak, honako hau

EGIAZTATZEN DU:

Akademia honen Onomastika batzordeak, bere azken bilkuran, honako hau aztertu eta onartu zuela:

“4.1. *Amorebieta-Echanoko* alkatearen eskaera *Larrea* auzoaren izenari buruz ikusten da, hain zuzen ere *Larra* edo *Larrea* izena den. Argi dago, batzorderen ustetan, ez direla mailak nahasi behar eta gauza bat dela izen jaso eta bestea gaur egungo ahozko erabilera. Horrela, eta nazioarteko adibideak hor ditugu, *Madriz*, *Barna* eta *Frisco* esan arren *Madrid*, *Barcelona* eta *San Francisco* dira izen ofizialak. Gauza bera gertatzen da Euskal Herrian *Atxabaleta* (*Aretxabaleta*), *Zeani* (*Zeanuri*), edo *Arguiya* (*Arrigorriaga*). Kasu honetan *Larra*, *Larrea* deklinatzean sortutako aldaketa fonetikoa baino ez da *Larretik*, *Larrera* eta *Larrean*, *Larratik*, *Larrara* eta *Larran* bihurtuz. Batzordeak **Larrea** berrestea erabakitzen du, argi utziz deklinatzean azkeneko *-a* artikulua dela eta ondorioz *Larreko*, *Larretik*, *Larrean*, etab. dela, nahiz eta ahozko ihardueran bestela esan”.

Eta hala adierazteko eta bertako udalbatzari igortzeko, izenpetzen du Bilbon mila bederatzehun eta laurogeita hamaseigarreneko maiatzaren hoteita bian.

Mikel Gorrotxategi,
batzordeko idazkaria